

Una voz sin cuerpo, hacia el amor
Mugatxoan
Donostia. Urria 2012



Entrecuerpos – Mugatxoan
elkarte kultural eta artistikoaren proiektua

info@mugatxoan.org

Deialdia

Una voz sin cuerpo, hacia el amor
Mugatxoan
Donostia. Urria 2012.

Una voz sin cuerpo, hacia el amor [Gorputzik gabeko ahotsa, maitasunerantz] da proposatzen dizuegun programa, urriaren 4tik 11ra Donostian izango dena. Programa hau *Special Issue* [Edizio Berezia] europako zentroekin sarean garatzen den programaren barne dago.

Sare hau Les Laboratoires d'Aubervilliers, In-presentable (Madrid), Station (Belgrad), Hybris Konstproduktion (Stockholm), BIS (Istanbul) eta Mugatxoan (Donostia) egiturek osatzen dute, zeintako artisten helburua den testuinguru egokiak ekoiztea asma-bidean dagoen arte baterako.

Gaurko performanceak nola argitaratzen du diskurtsoa? galde-tuz gero, beste galdera hauek sortzen zaizkigu: Nola egon, egon gabe? Zer antzematen diogu performance bati, ikusi ez, eta bakarrik entzuten badugu? Nola antzeman dezakegu performancea non gauzatzen den eta zer irudi sortzen duen? Nola desagertzen da gorputza? Ahotsa gorputza ote?

Galdera horiei eta beste batzuei erantzuteko, beste ekitaldi eta bi tailerrez osatutako programa bat prestatu dugu. Hala, Manuel Cirauquik eta Peio Aguirrek ikastaro bana emango dute, eta horietan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, gogoeta teorikoak eta praktikoak proposatuko baitituzte galdera horien inguruko arazoei buruz.

1. Lantegia

Maniobras espectrales en la radio

Manuel Cirauqui

Donostia. Urriak 05-07, 2012.

Mugatxoan 2012ko otsailean aurkeztu zuen *Tanatofonías* programaren ildotik, beste programa honen bidez irratia miaketa teorikoa eta praktikoa egitea proposatzen da, irratia subjektibotasunaren eta horren fantasmen topaleku gisa hartuta. XIX. mendean asmatu zuten gerotik, soinua haragiz gabetzeko eszenatoki pribilegiatua izan da irratia. Ahotsa gorputzetik banantzea, hildakoaren erresonantzia eta itzulera, entzumenaren itzulera, haluzinazioa... irratia esker dokumentatu ahal izan diren fenomenoak dira.

Maniobras espectrales en la radio [Espektro maniobrak irratian] tailerrean, hiru maila hauek kontuan hartuta aztertuko ditugu fenomeno horiek: narrazioa, soinu eraikuntza eta soinu transmisioa. Tailerraren lehen egunean, irradi uhinetako mamu-agerpenen kasu gogoangarri batzuk aztertuko ditugu

xehetasun osoz; esate baterako, psiko-fonien historia, Konstantin Raudive, William Burroughs, Mike Kelley eta beste batzuen esperimentuak, eta Jean Cocteau eta Ezra Pound-en poetikak. Bigarren eta hirugarren egunetan, material *tanatofonikoa* prestatu eta transmitituko dugu. Horretarako, soinua grabatu eta sortzeko hainbat gailu tekniko baliatuko gara, Mugatxoan San Telmon duen aldi baterako irradi estazioa plataforma gisa eta San Telmoren inguru gertuenak proba-leku gisa erabiliz. Esplikaziorik gabeko soinu-anomalia batzuen ironiazko edo karikatuzko erreproduktzioa baino gehiago, jardunaldi hauen helburua kartografia kritiko batean espektro-lurralde bat islatzea da, jarduketa eta proiektio ikusezineko espazio bat; izan ere, irratia baita kontzientzia zatituaren eta oihartzunez zeharkatuaren antzoki.

Manuel Cirauqui

Idazlea eta erakusketa komisarioa.

Gaur egun, Curatorial Fellow da New Yorkeko Dia Art fundazioan. Saiakera ugari egin ditu irratia buruz, soinu arteari buruz eta musika esperimentalari buruz, eta *Bomb* (AEB), *Frieze* (Erresuma Batua) eta *20/27* (Frantzia) aldizkarietan idazten du.

2. Lantegia

Auto-erreflexibitatea / auto-kontzientzia: maitasunerantz

Peio Aguirre

Donostia. Urriak 08-11, 2012.

Auto-erreflexitateari eta auto-kontzientziari buruzko tailerra egin genuen aurtengo otsailean, Mugatxoan ekimenaren barruan. Aztergai-galdera izan zen hiztunak zer kokapen duen erre-presentazioan, subjektuak nola hartzen duen bere buruarekiko kontzientzia, abiatuta gorputzaren presentziatik edo absentziatik, ahotsaren ikuspegi edo bestetasun arauetatik. Horrez gain, subjektu bilakatzeko beste prozesu batzuk landu genituen; esate baterako, klase kontzientzia eta botere harremanak. Film batzuek medio, arazo horietako batzuetan jarri genuen arreta, eta alerta egoera bat piztu zen norbanakoen eta kolektiboen izate eta egotean.

Tailer honen bidez, esperientzia hari jarraipena eman eta indarberritu egin genu. Baina, orobat, tailer hau beste aukera bat izango da, subjektua ekoizle gisa sakontasun handiagoz aztertze-ko. Izan ere, auto-kontzientzia gehiago izateak ekoizpen gaitasun gehiago izatea ekarri beharko luke berarekin. Walter Benjaminen «egilea ekoizle gisa» esapidetik, Kaja Silverman teorikoak Jean-Luc Godarden azken lanean identifikatzen duen «egilea hartzaile gisa» esapidetarako, galdera askoren iturria izan da ekoizpenaren gaineko arazoa: zer da egile izatea?, egile irudia noiz eta nola agertzen da?, egileak zer eragin du afektuen sorreran? *JLG/JLG Autoportrait de décembre* (1995) lanaren bukaran hau dio Godardek, ia ondorio gisa:

«Maitatzen dudala esan dut, horra hor nire promesa. Gaur egun, nire burua sakrifikatu behar dut, maitasun hitzak zentzu bat izan dezan. Lurrean maitasuna zabaldu dadin». Adierazpen horrek galdera hau eginarazten digu, modura: zer motako sortze-forma saiatu daiteke, maitasuna ekoizpen gisa eman dadin? Bere saiakeran, Silvermanek transferentzia batzuk seinalatzen ditu ematearen eta hartzearen artean, igorle bilakatzearen eta kanpoko estimuluen ontzi, isla eta, aldi berean, zabaltzaile izatea erabakitzearen artean. Tailer honetan ekoizpenaren joera garaikideak ahalbidetzen dituen egoteko moduak, kokapenak eta bizimodu kasuak aztertuko ditugu, eta kulturaren ikuspuntutik gure berezko ezaugarria den izaera posmodernoa onartuko dugu. Tailer hau artearen, sorkuntzaren, teoriaren eta ezagutzaren arloak lantzen dituztenei zuzenduta dago, edozein modalitate edo diziplinakoak direlarik ere. Hainbat gairi buruzko gogoeta kolektiboa bultzatuko dugu, testuen irakurketan, pelikula emanalditan, talde barruko eztabaidan eta beste hainbat euskarritan oinarrituta. Teorikoa eta praktikoa izango da, hau da, gogoeta jarraibide batzuetan oinarrituko da, eta eztabaidan eta jakintza kolektiboan parte hartu eta horren alde egiteko grina sustatuko da. Tailerra lau egunekoa izango da, goiz eta arratsaldeko saiotan banatuta.

2. Lantegia

Peio Aguirre

Arte kritikaria, komisario independentea eta editorea.
Donostian bizi da eta bertan lan egiten du.

2000 eta 2005 urteen artean D.A.E. Donostiako Arte Ekinbideak-eko zuzendari-kide izan zen. Honako erakusketa hauen komisario izan da: *Imágenes del otro lado*, CAAM, Las Palmas de Gran Canaria (2007), *Arqueologías del futuro*, Rekalde Aretoa, Bilbo (2007) eta *Asier Mendizabal*, MACBA, Bartzelona (2008). Nazioarteko hainbat aldizkaritan argitaratu izan ditu artikulatuak, besteak beste, *Afterall*, *A Prior Magazine*, *Flash Art*, *ExitExpress* eta *e-flux journal*, eta artista garaikideei buruzko hainbat testu monografikoren egilea da. *Crítica y meta-comentario* izeneko bere blogean idatzi ohi du. <http://peioaguirre.blogspot.com>.

Deialdia

Izen ematea

Lantegi hauek zabalik dira praktika artistikoak, sorkuntzakoak, teorikoak edo kognitiboak edozein modu edo diziplinatan garatzen dituztenentzat. Lantegi batean zein bestean parte hartu daiteke, edo bietan; mesedez, adierazi zure aukera.

Izen ematea posta elektronikoz info@mugatxoan.org helbidera bidali edo eta posta arruntaz: Arteleku. Mugatxoan 2012. Kritobaldegi 14. 20014 Donostia helbidera. Izen-emate epea irailaren 5ean amaitzen da.

Ebazpena: irailaren 7an. Hautatuak izan direnei zuzenean jakinaraziko zaie eta zerrenda webgunean argitaratuko da. Lantegiko partehartzaile kopurua 15ekoa gehinez.

Izena: NAN/Pasaporte:
e-mail: Tel:
Jaiotze data eta lekua:
Helbidea:

- 1. lantegia. Manuel Cirauqui. Urriak 5-7. 10etatik 14etara.
- 2. lantegia. Peio Aguirre. Urriak 8-11. Goiz eta arratsaldez.

Dokumentazioa

- Motibazio gutuna.
- Biografia eta egindako jardueren gaineko txostena.

Erraztasunak

Mugatxoan arduratuko da Donostian bizi ez diren partehartzailei egoitzetan ostatu emateaz (muga batzuen barne), logela partekatuean eta gosaria barne dutela, urriaren 5etik 11ra.

Matrikula

- 1. lantegia: €75
- 2. lantegia: €125

Partehartzaileek lantegiaren lehen egunean aurkeztu beharko dute ES38 2101 0092 19 0011 1244 68 zenbakiko kontu korrontean ordainketa egin izanaren agiria.

Informazio gehiago behar izanez gero, ondorengo helbidera jo dezakezu:

info@mugatxoan.org | www.arteleku.net

Mugatxoan 2012.
Arteleku – Gipuzkoako Foru Aldundia, Eremuak
eta Europako Batzordeko Kultura programak ekoiztua.
Laguntzaileak: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta San Telmo Museoa.



eremuak



STM
San Telmo Museoa

Proiektu hau Europako Batzordearen laguntzaz finantzatu da.
Argitalpen honen erantzukizun guztia egilearena da.
Batzordeak ez du hemen azaldutako informazioaren erabilerean ardurarik hartzen.